

ZARAUZKO TRIATLOI ELKARTEA

ZARAUZKO XV. TRIATLOI TXIKIA

Kontaktua: direccioncarrera@zarauzkotriatloia.com



ZARAUZKO TRIATLOI TXIKIA

2025eko urriaren 11n, goizeko 10:00etan, ospatuko da Zarauzko Triatloi Elkarteak antolatzen duen XV. Zarauzko Triatloi Txikia, Zarauzko Kiroldegian.

Gaztetxoak triatloi munduan barneratzeko Zarauzko Triatloi Elkarteak antolatutako froga bat da eta Eskola Kirola egitasmoaren barnean antolatzen da. Izen ematea ikastetxeko koordinatzailearen bitartez egingo da. Parte hartzaileek triatloi bateko segmentu guztiak jorratuko dituzte; igeri, bizikleta eta korrika egin beharko dute. Parte hartzaileak 2 mailetan banatuko dira adinaren arabera. Maila bakoitzaren ezaugarriak honakoak dira:

BENJAMINAK (LH3 eta LH4):

Igeriketa

Zarauzko Kiroldegiko igerilekuan 50 metro burutu beharko dituzte. Umeek ekarri beharreko materiala:

- Igeriketako erropa
- Igeriketako betaurrekoak

Bizikleta


750 metroko zirkuituari itzuli bat eman beharko diote. Bizikletak boxeetatik atera eta ondorengo ibilbidea egingo dute (kolore gorria): Itaisoro kalea – Zuberoa kalea – Aitza kalea – Herrikosoro kalea - Itaisoro kalea. Umeek ekarri beharreko materiala:

- Bizikleta eta kaskoa
- Bizikletarako erropa

Korrika

300 metroko zirkuituari itzuli bat eman beharko diote, Klabelinsoro kaleko espaloian zehar (kolore urdina).

ZIRKUITUA



ZARAUZKO TRIATLOI TXIKIA

ALEBINAK (LH5 eta LH6):

Igeriketa

Zarauzko Kiroldegiko igerilekuan 100 metro burutu beharko dituzte. Umeek ekarri beharreko materiala:

- Igeriketako erropa
- Igeriketako betaurrekoak

Bizikleta


1.500 metroko zirkuitua burutu beharko dute, bi itzuli emanaz benjaminen zirkuitu berari. Bizikletak boxeetatik atera eta ondorengo ibilbidea egingo dute (kolore gorria): Itaisoro kalea – Zuberoa kalea – Aitza kalea – Herrikosoro kalea - Araba kalea – Itaisoro kalea. Umeek ekarri beharreko materiala:

- Bizikleta eta kaskoa
- Bizikletarako erropa

Korrika

400 metroko zirkuituari itzuli bat eman beharko diote (benjaminena baino luzexeagoa), Klabelinsoro kaleko espaloian zehar (kolore urdina).

ZIRKUITUA



ZARAUZKO TRIATLOI TXIKIA

ORDUTEGIA

Alebinak (LH5 eta LH6)

- 09:30ean boxeen sarrera
- 10:00etan lasterketen hasiera

Benjaminak (LH3 eta LH4)

- 11:00etan boxeen sarrera
- 11:30ean lasterketen hasiera

Adierazitako ordutegia gutxi gora beherakoa da. Irteerak adin tarte berdinekoen arteko taldeetan egingo dira. Talde batek bukatu ahala, hurrengoa abiatuko da. Honengatik, ordutegiari jaramonik ez egitea gomendatzen da eta 09:00etarako kiroldegian egotea gomendatzen da.

BEHARRAK

Zarauzko Triatloi Elkartek, Eskola Kirola egitasmoaren barnean antolaturiko ekitaldia aurrera eramanez ahal izateko, elkartek hurrengo beharrak ditu:

- Kotxeen zirkulazio antolaketarako udaltzainak
- Udaltzainen kono eta hesiak
- Megafonia konektatu ahal izateko, argi indarreko toma bat.

ZIRKULAZIO ETA APARKALEKU BEHARRAK

T1-eko boxeak kiroldegi pareko aparkalekuan kokatuko dira, Itaisoro kalean zehar, Araba eta Zuberoa kaleen arteko zatian. T2-ko boxeak aldiz, Itaisoro kalean zehar, Herrikosoro eta Zuberoa kaleen arteko zatian kokatuko dira. Hori dela eta, larunbat goizean Itaisoro kale osoa hutsik egotea komeni da.

Bizikletako zirkuituaren norantzan dauden aparkalekutan ibilgailuak frogaren berri jartzea komeniko litzateke.

Haurren segurtasuna bermatze aldera, gomendagarria da zirkuitua gainontzeko ibilgailuei itxita egotea.